



Gaia: BITARTEKO ELEKTRONIKOEN BIDEZKO JAKINARAZPENAREN HASIERA

Arabako Foru Aldundiak aurreikusi du 2020ko irailaren 7an hasiko dela bere egoitza elektronikoan eskuragarri jartzen zerga prozeduretan nahiz zergaz kanpoko prozeduretan emandako jakinarazpenak, eta haietako bakoitzak bere erregulazio berezia dauka.

Arabako Foru Ogasunak posta bidez formalki jakinarazi die data horretatik aurrera *jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez jasotzera behartuta daudenei* zer baldintza bete behar dituzten jakinarazpen elektronikoak eskura jartzeko, haien berri posta elektronikoz abisatzeko eta haietarako sarbidea izateko, haiek eskura ez jartzeko kortesia egunak zehazteko, epeak eta ondorioak zehazteko, eta jakinarazpen horiek jasotzeko ordezkaria izendatzeko. Informazio hori www.araba.eus helbidean daukate, atal honetan: Ogasuna/Zergen kudeaketa/Jakinarazpen elektronikoa.

Gainerako jakinarazpenak (zergenak ez direnak) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak *14. artikuluan (Administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko eskubidea eta betebeharra)* ezarritako araudira egokitzen dira, eta 2. puntuak adierazten du zein kolektibok onartu behar duten bitarteko elektronikoen bidez jasotzea jakinarazpenak. Hauexek:

- a) Pertsona juridikoak.
- b) Nortasun juridikorik gabeko entitateak.
- c) Diharduten jarduera profesionalean jarduteko elkargo bateko kide izan behar dutenak, jarduera profesional hori dela-eta

Asunto: INICIO DE NOTIFICACIÓN POR MEDIOS ELECTRÓNICOS

La Diputación Foral de Álava tiene previsto iniciar el día 7 de septiembre del presente año 2020 la puesta a disposición en su Sede Electrónica de las Notificaciones emitidas tanto en procedimientos tributarios como no tributarios, cada uno de los cuales tiene su regulación particular.

La Hacienda Foral Alavesa ha notificado formalmente por vía postal a quienes a partir de esa fecha están *obligados a recibir sus notificaciones por medios electrónicos* de las condiciones de la puesta a disposición, aviso por mail y acceso, señalamiento de días de cortesía para no puesta a disposición, plazos y efectos, y designación de representante para la recepción de Notificaciones Electrónicas. Dispone de esta información en www.araba.eus, Apartado: Hacienda-Gestión tributaria-Notificación electrónica.

El resto de Notificaciones (las no tributarias) se ajustan a la regulación establecida por la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que en su *Artículo 14. Derecho y obligación de relacionarse electrónicamente con las Administraciones Públicas* y Punto 2 señala los colectivos que deben admitir ser notificados por medios electrónicos, a saber:

- a) Las personas jurídicas.
- b) Las entidades sin personalidad jurídica.
- c) Quienes ejerzan una actividad profesional para la que se requiera colegiación obligatoria, para los trámites y actuaciones que realicen con las Administraciones Públicas en ejercicio de dicha actividad profesional. En todo caso, dentro de este colectivo se



administrazio publikoekin egin behar dituzten izapide eta jarduketetarako. Kolektibo horretakotzat joko dira beti notarioak, jabetzaren erregistratzaileak eta merkataritza erregistratzaileak.

d) Administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartua dagoen interesdun baten ordezkari direnak.

e) Administrazio publikoetako enplegatuek, enplegatu publiko izateagatik administrazioekin egin dituzten izapide eta jarduketetarako, administrazio bakoitzak erregelamenduz zehazten duen eran.

Komunikazio honen bidez jakinarazten dizugu, baldin eta zure kasua aurrekoetakoren bati badagokio eta, beraz, bitarteko elektronikoen bidez jakinaraztea onartzera behartuta bazaude, irailaren 7tik aurrera ez zaizula jada postaz bidaliko jakinarazpen gehiago.

Jakinarazpen elektronikoak **egintzat joko dira hartzailea Egoitza Elektronikoko “Nire jakinarazpenak” atalean edukia ikustera sartzen den momentutik**. Erregistraturik geratuko da hartzailea noiz eta zer ordutan sartu den jakinarazpenaren edukira. Hortik aurrera epeak zenbatzen hasiko dira legezko ondorio guztietarako.

Jakinarazpena eskura jartzen denetik hamar egun pasatzen badira haren edukira sartu gabe, jakinarazpenari uko egin zaiola pentsatuko da, baina egintzat joko da legezko ondorio guztietarako.

Egoitza Elektronikoa jakinarazpenaren edukia eskuratu ondoren, edo eskura jartzen denetik hamar egun pasatzen badira eskuratu gabe, nahi duzun beste aldiz ikusi ahal izango duzu.

ADI: Jakinarazpen elektronikoa eskura jarri dela adierazten duten abisuak jaso nahi badituzu, helbide elektroniko bat edo gehiago adierazi behar d(it)uzu Egoitza Elektronikoa,

entenderán incluidos los notarios y registradores de la propiedad y mercantiles.

d) Quienes representen a un interesado que esté obligado a relacionarse electrónicamente con la Administración.

e) Los empleados de las Administraciones Públicas para los trámites y actuaciones que realicen con ellas por razón de su condición de empleado público, en la forma en que se determine reglamentariamente por cada Administración.

Por medio de esta comunicación le informamos que, si su caso corresponde a alguno de los anteriores y por tanto está obligado a admitir ser notificado por medios electrónicos, a partir del día 7 de septiembre ya no se le enviarán más notificaciones por vía postal.

Las notificaciones electrónicas **se entienden practicadas desde el momento en que el destinatario acceda a su contenido en el apartado “Mis notificaciones” de la Sede Electrónica**. Quedará registrada la fecha y hora de acceso al contenido de la notificación. A partir de ese momento empezarán a computarse los plazos a todos los efectos legales.

Si transcurrieran diez días naturales desde que la notificación se pusiera a su disposición sin que se acceda a su contenido, se entenderá que la notificación ha sido rechazada, teniéndose por efectuada a todos los efectos legales.

Una vez haya accedido al contenido de la notificación en la Sede electrónica o habiendo transcurrido diez días desde su puesta a disposición sin hacerlo, podrá visualizarla cuantas veces necesite.

IMPORTANTE: Si desea recibir avisos de la puesta a disposición de sus notificaciones electrónicas, deberá indicar en la Sede electrónica, dentro del apartado “Mis



“Nire jakinarazpenak” ataleko “Lehentasunak” atalean. Abisuak helbide horretan (edo haietan) jasoko dituzu. Abisu horiek ez dira inolaz ere jakinarazpentzat hartuko. Nahiz eta arrazoi teknikoengatik jakinarazpen baten abisua bidaltzerik ez egon, jakinarazpena bera guztiz baliozkoa izango da.

Eta ez banaiz aurreko kolektibo batean ere sartzen?

Jakinarazpen elektronikoa onartzera behartuta ez bazaude, jakinarazpenak eskura jartzeko aurretiazko jarraibideak ere bete ditzakezu; izan ere, jakinarazpena postaz iristen jarraituko bazaizu ere, jakinarazpena beti jarriko da zure eskura Egoitza Elektronikoa. Abisua iristen zaizunean, eta hala nahi baduzu, kontsultatu ahal izango duzu, eta, orduan, jakinarazitzat joko zaizu.

Eta jakinarazpena bide elektronikoz bakarrik jaso nahi baduzu eta jakinarazpenak postaz jasotzeari utzi nahi badiozu, aipatutako "Lehentasunak" erlaitzean izapide mota bat edo gehiago egiteko izena eman dezakezu, nahi baduzu. Une horretatik aurrera, izena eman duzun izapide moten jakinarazpen berriak jasotzeko, hamar egun naturaleko epea izango duzu sartzeko haiek eskura jartzen direnetik; bestela, ukatutzat joko da.

Nola eskura dezaket jakinarazpen elektronikoa?

Zure jakinarazpen elektronikoa eskuratzeko, honako hauek eduki behar dituzu kontuan:

1. Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa onartzen den identifikazio bitarteko elektronikoa eduki behar duzu. Hemen duzu informazioa: www.araba.eus, Egoitza elektronikoa, klikatu “Nola sartu”.
 - Pertsona juridikoek ziurtagiri digitala erabili behar dute
 - Pertsona fisikoek BAKQa ere erabil dezakete (*ez da onartzen BAKa*).

notificaciones”, en “Preferencias”, una o varias cuentas de correos electrónicos donde se le remitirán los mismos. Estos avisos en ningún caso tendrán la consideración de notificación. Si por motivos técnicos, no fuese posible realizar el aviso, la notificación, no obstante, se considerará plenamente válida.

¿Y si no pertenezco a ninguno de los colectivos anteriores?

También puede seguir las instrucciones previas para recepción de avisos de puesta a disposición de sus notificaciones si no está obligado a admitir la notificación electrónica ya que, aunque la notificación le seguirá llegando por vía postal, ésta siempre se pondrá a su disposición en la Sede Electrónica. Al llegarle el aviso y si así lo desea, podrá acceder a consultarla dándose entonces por notificado. Y si desea ser notificado únicamente por medios electrónicos y dejar de recibir notificaciones por vía postal, en la mencionada solapa “Preferencias” puede voluntariamente suscribirse a una o más clases de trámites. A partir de ese momento, para las nuevas notificaciones de las clases suscritas, tendrá efecto el plazo para acceder de diez días naturales desde la puesta a disposición o en caso contrario se entenderá rechazada.

¿Cómo puedo acceder a la notificación electrónica?

Para acceder a su notificación electrónica debe tener en cuenta lo siguiente:

1. Es necesario disponer de un medio de identificación electrónico admitido en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Álava.

Puede informarse en www.araba.eus, en Sede electrónica, clicando en “Cómo accedo”.

- Las personas jurídicas deben utilizar



2. Sartu Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa (www.araba.eus), joan “Arlo pertsonala” atalera eta klikatu “Sartu”. Identifikatu elektronikoki, eta “Nire jakinarazpenak” atalaren barruan jo “Jakinarazpenak” atalera

OHARRA: egoitza elektronikoaren "Nire baimenduak" atalean hirugarren pertsonen (fisikoak edo juridikoak) baimena eman dakieke zure izenean hainbat zerbitzu egin ditzaten, besteak beste, "Nire jakinarazpenak". Baimenduna identifikatu egingo da egoitzara sartzean bere ziurtagiri digitalarekin edo BAKQarekin, eta, "Nire baimenak" atalean, baimena eman zionaren izenean jardun ahal izango du. Argibide gehiago, hemen: : <https://web.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/baimenak>

**Gizarte eta Erakunde Harremanen
Zerbitzua**

Certificado Digital

- Las personas físicas además también pueden utilizar BAKQ (*no se admite BAK*).

2. Acceda a la Sede electrónica de la Diputación Foral de Álava en www.araba.eus y en el apartado “Área personal” clique “Entrar”.

Identifíquese electrónicamente y dentro del apartado “Mis notificaciones” vaya a “Notificaciones”

NOTA: en el apartado “Mis autorizados” de la Sede electrónica es posible autorizar a terceras personas (físicas o jurídicas) para que puedan realizar diferentes servicios en su nombre, entre ellos, “Mis notificaciones”. El autorizado se identificará al acceder a la Sede con su certificado digital o BAKQ y en el apartado “Mis autorizaciones” podrá actuar en nombre de quien le autorizó. Más información: <https://web.araba.eus/es/sede-electronica/autorizaciones>

**Servicio de Relaciones Sociales e
Institucionales**